

Haurtzaro Ikastolako lehendakari agurgarria:

Iristear da Oiartzo Ikastolako komunitate guztiarentzat egunik berezientariko bat. Gure ikasleak, joan den udan batxilergoa amaitu zutenak, agurtu eta omentzen ditugun ekitaldiaren eguna.

Omenaldi hau Oiartzungo udaletxeko pleno aretoan ospatuko den ekitaldi xume batekin egingo dugu. Ekitaldia abenduaren 23an goizeko 11:00etan izango da.

Eguna berezia ez da guretzat bakarrik. Oiartzoz gain, ia 18 urtean parte hartu duten Ikastolentzat ere ospakizunerako eguna dela argi dago, Ikastolan egindako ibilbideari bukaera arrakastatsua eman diotela ospatzen baitugu ekitaldi honetan.

Horregatik, nahiko genuke zu eta Haurtzaro Ikastolako ordezkariak gurekin izatea egun berezi honetan. Noski, gonbidapen hau zabala da eta kontseiluko edo Haurtzaroko kide guztiei zabaltzen diegu.

Bukatzeko, eguberri zoriontsuak opa nahi dizkizut zuri eta Haurtzaroko lan-talde osoari. Ongi pasa egun hauek eta urte berri on.



Maider Gezala Sala

Oiartzo Ikastolako Lehendakaria